# KARDABERAZ

"EUSKEREAK NURUA JASOTZEA JAUNGOIKOAK NAI DU"



URTZIZTIKO KARDABEREZTAŘAK

7'gn ZENBAKIA

## ABRKI-BIDEA


Orî.

I/.-ÎLUNETAN...AUZO-ZAIE.................... 2)
2/.-EIKAR-MIN...........(olerkia).......... 5)
3/.-AUŘAK.................................. 6)
4/.-AGNOSISTAŘAK........................... 9)
5/.-GURE ELBURUA...........................II)
6/.-JOSU'REN BERBIZKUNDEA................. I2)
7/.-ELEIZA GARAIÎE......................... I4)
8/.-BAKE BIÑA.............................. I6)
9/.-LEOVIGILDO TA EUSKOTAŘAK............... I8)
I0/.-AGIRE'TAR MARTIN NUNGOA?IBAŘANGELUAKUA? 20
II/.-EZ DA GOGOZKOA ABEREAREN ARIMA........22)
I2/.-MORALA TA UZKURTZA.................... 24)
I3/.-NOLA IDATZI........................... 26)
I4/.-EUSKO-IKASTOLAK:AZIERA ONA............28)
I5/.-ETA BIAR ZAE ?........................ 30)


############## ##########

##################

# Aunelan... auzo-zale...

Gizaldiak juan eta gizaldiak etoři ementxe, Jaungoikuak emon euskun basteř onetantxe gozuz, gu euskotřok. Egundokoetan ezi ta bertokotu giñan bertokotu be mendi-arte onetan.... Eundakaz ta miľakaz uteen buruan bizirik oindiño be aintxiñako euskotařen semak. Beti eskur-urte eusko ariztian. Igaťtu edo irotu orduko landara bapřak aritz zeřak ipurdian.

Bastař onetan egin doguzan urteei begiratuta, euskotařok ipur-lokak garanik ezin esan daikegu bidez ořaitiño. Zorionez izan gara etxe-zale. Saři aldatzen dan landarea berez igertzen da-ta. Etxekoi giñan artean beste modutan bizi giñan.

---

Jo ginduzan, baña, euskotařok be ibilªmin ase eziñak eta bari-zalekeri kiľikiak.

Eta ibil-min eta bari-zalekeri ořein agerpide ořa oř gure itxaz-gizon sendo ta gudari trebeak. Itxasorik-itxaso, bastařik-bastar, aldenik-alden XIV gn. eunkia ezkero ibiľi diran euskotaren izenak gomutaratu egizuz. Nundik-nora ta zertara ginuazan jakitaka jo batera ta jo bestera asi giñan ezkero ondatu gara. "Su universalismo, su centrifugismo, Su dispararse hacia fuera con sus lanzas y sus lanchas...les hundió en la decadencia", diño gure ibil-min oneri buruz Atxika-Allende idasle argiak.

Ba-duaz; uřiñetara juan be. Etxean ziranean be ez ziran etxe-zulo ta etxe-zalegi ta orain.... atzeři-aixe eřiak kixkaldu dauz ořein biotzak eta galdu yakoe amaren gomutea be....Eta etxe-zaletasu nork sortu ořein biotzetan ?

---

Gizonok ibil-min eta bari-zale jatořiz gaituzu, eme iraŭurle. Berez egoki ta inurakor yakuna, neuřitik urten-ezkero kaltegaři izaten yaku, baña. Ibiľmiñaeta bari-egařici be adimen-argitan eta beuřiz danean on yaku. Iľunetan bidekatu egiten gauz baña sařitan eta orduan galgaři ta geure buruan ondamendi yaku. Euskotařok ez ete-gauz bidekatu ? Gure jakitun eta jakin-zale asko bai beintzat. Erdel-ekrti

etan agiri 
etakośgfmà diran eta euskeraz ezer egin ez daben euskotaŕen izenei begiratu,ene irakuŕle.

------------

Ibil-min eta baŕi-zalekeri oŕeik bakotxa ber aldetik joten dau.Gure itxas-gizonak Kantauri-itxasoa laga ta beste itxaso ez-ezagunetarerutzn euzan Gure jakin-zale ta jakitunakerdel-baŕutietaraostera.Eta juan ba-ziran,juan ziran¡Unetaragiño erdeldundu ta erdel-zaletu yakuzan.Euskerari....

"Salen de su País-dirausku Laŕamendi'k- y hacen estudio de olvidarla;ni escriben,ni siquieren quieren escribir una carta en su lengua".Kanpora uazanei buruz iñoan ori.Etxe baŕuan genduzanak bertiok baizen zabar genduzan."Dentro del País... nada se lee,ni se escribe,ni se enseña a los niños en bascuence;no hay maestro que quiera,ni sepa deletrear en su lengua"diño Laŕamendi ber-berak

Gure eŕi-lantzea ta jakitea sendotu ta etxea zaintzea egoki uen jakitun,agintari ta jakin-zaleak eurak dira euskotaŕok lotsar ta euskeraren ga galbide ta ondamendi.

Laŕamendi'ren aldi-auŕetako jakitun edo jakin-zaleak,ba,Laŕamendi'k darakusguzanen antzeko doguz.

Atxular'ek be euskeraren edo eusko-elertiaren uŕia euskeldun euskeldunon zabar ta nagikeriaŕen dala diño;erdel-izkuntzak"bezain aberats eta konpplitu izanen zen euskera ere eta baldin hala ez bada,euskeldunek berek dute falta".

Zer dala-ta duaz baña etxetik at ? Zergaitik oŕen begirapen gitxi euskera zar maitegaŕiari ? Erderaz idastea eŕetzago yakoelako ? Aldatz-goreak eta mendi-aldapeak euskotaŕari ez dautsa atzerarik eragin.Labixeri'k esaten ebanez euskotaŕok mendi-tontoŕera zuzen zuzen igon ezin dogunean zearka igoten dogu.

Auzokoan iŕi ta baŕeak zirala-ta b astartu eŕ ete eben ?Oŕen lotsoŕ eta bildurti ez gaituzu euskotaŕok.

Etxerik ezagutzen ezebelako ez ete zan ? Etxe-zaletasuna epeldu egin yakoen.Euren jakinnaia asetera juan ziran erdel-baŕutietara ta ase ta gero be bertan geratu yakuzan.Oŕ yabiltzuz,irakurle eg gin-alak egiten iñungo saiŕetan,etxe alde ta etxea

tautik be egiteka.

Landarik-landa, lorerik-lore eguak uřatu ta b buruak urkatu artenedař-biĺa ibiĺi ta jardunareñ buruaz batu dabezan eztigaitxoak iñungo eřaul taetara eruan daroezan erletxaok dirudie euskotar eřdel idasleok.

Euron "edařok" usteko ontzi erdoitua ete euskera ? Erdoi ta ugeřa erabiĺareñ buruz galtzeñ dirana ba'ekien baña.

-------------

Asko ta sko bidekatu euzan ibil-min eta bafi zalekeri arek. Bidekatu euzanak asko dirana zeuk be ba'dakizu irakuele. Euskerari jaramonik be egin ez dautsoan euskotaren eta euskeldunen izenez eři casak beteko gendukez eta gure agintariak bein ba ño geiagoten euskera autuotan zeñea oker jokatu eben adierazoteko Azpeitia'ko, Tolosa'ko ta Gernika'ko aspaldiko batzařetan euskeldunak onartu ebezan zenbaut erabaki ikuste a naiko da. O'ra or euskeraren galbidea. Sagar ustelak be zintzoa ustelda egin daroala ko ta buruko gaitza soin guztira zabaltzen dalako gure agintari ta jakitunen erdel-gurak eritar ta beseřitaren biotzeran be erdel-zaletasun ori sortu-erazotea ez yatzu siñezg gaitz izango.

-------------

Egia esan, zuzen ibiĺi diranak be ba'doguz baña. Onetxek bai aintzagaři ta txalogařa! Aldiz-al diz edozeinbat euskotar ta euskeldun argi ta zintzo izan doguz.

Onaitxek zaindu izan dabe euskera zařareñ bizia. Eta eurok izan ez ba'ziran....aspaldi ginduzan euskotar ta euskeldun danok hidekatuta, ta... (nok jakin?) euskera bera be lur-jota. Oneitxek indartu eben euskeraren bizia. Oneitxek jantzi izan dabe

"Heuskeldun den gizon orok altza beza buruia!"

Ořa Sarasketa'ko seme argiaren deadara! Ořa or Etxepare'tar Bernar'en eupada. Iñungo saiĺetan dakusazanei dagitsoe Etxean be ba'dakus, baña, besuak batuta, lanerako nagi, edo dantzarakō lotsor diran zenbait gaste. Eta ořeu be dantzarako ajuia:

"Heuskara da kanpora eta goazen dantzara"

# elkaŕ-min

Zauri-odolez goŕi,len zuri osoa.
Aterik-ate dan...dan...eskale gajoa;
& & &
Edur-soñekoz zuri mendiak erpiña,
Izotzez aŕi garden oianeko oziña.
Sorbaldan zoro antzo tataŕez maindira,
Eskaletxoa eskean eŕitik-eŕira.
& & &
Jauregi eder,zabal,orma aŕi-landua
(Amaika eguzki-muxu,euri-jasa artua)
-Limosnatxo bat,aŕen,jauregi-nagusi,
Eskaletxoaz,jauna,izazu eŕuki.
& & &
Aterik-ate egunez,ilunez negaŕa...
Ume-zurtz gaixoentzat il zan maite-geŕa
Txiroarentzat zeken MAITASUN ziztriña;
Nondik besarkatuko gau ta egun SAMIÑA.
===========
Etxe-auŕean laŕi eiz-dunpatekoa,
Ega-baldarka teĺatupera usoa,
Zauri-odolez goŕi,len zuri papaŕa.
Eiztariaren biotzzital ta kaxkaŕa;¡
& & &
Zauri goŕixta tan...tan...odolez ixuri,
Ituŕi ugerdunaren negaŕa iduri.
Eŕukiz luzatu dot,maiteki,eskua;
Eiztari naizelakoz ega teĺatura.
=============

Din...dan...din..dan..
Eleizako toŕean.
Iĺotzik datsa...din..dan..
Eskaletxoa lurpean.

Din..dan..din..dan...
Eduŕa zuri kalean;
Usoa izoztuta
Iĺobi ertzean

################ ################

# aurak

Geroko gizon ditugu aurak.Ondo azi ditzagun eta gizon jatorik izango degu gero.Kasketak ematen diten guzia egin bezate,eta ez ditugu bein ere gizon izango.Eguzkia bezin argi da egi au.Sozialistak eurak ere igari diote.Gaztedia euretara ekariko ote,alegiñak egin eta egin ari dire.Eta nori dagokioauraren azibidea ? "Umearen sentzunaetxean entzuna"genion beste lantxo batean.Etxeko du aurak azieraren erdia edo geiago -genion- eta saya bitez ondo azitzen gurasoak.(KARDABERAZ 5'gn. zenbakian).Orixe bera diogu gaur ere;eta orixe eutsi nai genioke gaur ere.

Nori dagokio,bada,jatoriz umearen aziera ?

Sendia beti izan degu;betiko degu.Laterirk ez zanean,ba'zan sendirik. Aspaldiko garaietan, ez urteak,ez gizonak begiz jo ezin dituten garaietan,ba'zan sendirik.Ba'zan eta sendo izan ere. Edesti-aureak itz.Edesti-aureari galde egin.

Nori dagokio aspaldi aueten umearen aziera ? Nori laterirík ez ba'zan ? Egunak joan,egunak etori,gizona lardaixtu egin zitzaigun.Alperkeriak, nagiak eta griña makurak jota,erori egin zitzaigun gizona.Aurik azi nai ez,eta lateriak bidali zition.Ba'dakutzegu ondorenak.Totemlari-eriari begiratzea asko degu.Oitura naratx eta zikiñak nagusi,uzkutz eta oitura onak oinpetan:ora totemlaroen zoria.

Eta gaur egunean ? Gaur egunean ere gizona gizon egiten ez degu sendiari eramango dionik.

Maite du aurak etxea,maite du gasteak etxea, maite du ezkonduak,maite du agure zarak ere.Etxeak min...? - Min aur,gaste ta zarak ere.Etxeak poz...? - Poz dizute aur,gaste ta zarak ere.

Sendian ikasia barura oi zaigu;sendian ikasia gure odol eta mami bikurtzen degu.Eta sendiak asko daki.

Gure jatorizko legearen beri ba'daki sendiak; ba'dakitze gizonon egitekoak.Zuzen bizi bear de-

guna ba'daki;eta Hori gaitzik egin bear ez zaionaere bai.Gure bizi-legea ezaguna du.

Jatorizko legerik,bizi-legerik betetzen ez ba'degu,geroenean ondo ezin izan gintezkena ere gogoan du,Jakiteko guzia daki.

Eta...asko erakutsi dezaiguke.

Sendiak senide bakoitzaren ardurarik ba'du; eta aundia izan ere.Gure miñak sendatzen,ez da sendia adiñakorik.Gorputza min degunean,etxera bidean oi gaituzute;biotzak min digunean,anaietara jotzen degu zuzen;amarengana nai azkar.Non etxean adiñean ?

Asko daki sendiak,eta gure ardurarik ere ba'du.Ez ote,bada,guri sendiak bide zuzenik erakutsiko ? Ez ote aurai zuzen bidetik jo-eraziko ?

Jo dezagun:lateriaren mende dira aurak.Izango ote lateriak auraren ardurarik ? - Bearko;ortarakoxe da-ta.Zenbatetañokorik ordea ? Ora aria eten.Aundia izanaren ere,gurasoak beti guraso.

Zer zaio lateriak jari duan ume-zaiari aura ondo ala gaizki azi ? Zer zaio ume-zaiari aura ? Ume-zaitzeak ematen dion irabazia bakar-bakarik. Ez du bere;eta nere ezdaneren ardura gutxi oi nik.

Utzi ditzabun aurak lateriaren esku;eta totemiari-eriari ta gaur eguneko zenbait eriei gertatu zaiena gertatuko zaigu guri ere.Oitura zikin-naratxak nagusi;eta uzkutz,bizi-lege ta oitura onak oinpetan izango ditugu aurki,Ez bait zaio lateriarimaurik ajola.

Egia,oraatik,egi;ezin lezake sendiak aura bear bezela azi;ezin lezaioke sendiak aurari adimenik bear adiñean ezi.Gaur eguneko gizonak,Jaungoikoa ta adimena lagun,bide beriak uratu ta begiak ezin mendera duten zelai bat jo du begiz-begi.Gaur eguneko gizonak,baren-egaria nola edo ala asetzekotan asko bear du;eta ori ez da sendiaren esku.

Sendiak ezin duanetan lagun bekio lateriak sendiari;baña lagundu bakarik.Ez beza sendirik itxo,ez ari eskubiderik osto;utzi bizitzen.Sendiari laguntzeko,aren utsak eta eziñak osatzeko da lateria.

Aura ondo azi dezan ikastolak bear ditu sendiak;eta eskura bezaitio lateriak.Baña ikastola

ta maxuak eskuratu ala,sendiak al duanetan,utzi se sendiari.

Ofa "a posteriori" egia esan.Aufaren azibidea,aufa azitzea sendiari dagokiola,alegia.

Eta "a priori" zer jakin genezake ? Ikusi dezagun:

Zertarako da sendia ? Zertarako dira gurasoak ?

Erantzun jatofa Kristau-Ikasbidearen onako au:Sema-alabak arduraz azi ta garaiz bazibide egokia ematea da gurasoen aufarekiko eginbeafa.Ofa or sendiaren eginbeafa.Aufa azi ta ezi ta benetako gizon egin.

Eta egia dio Kristau-Ikasbideak.Gizadiari eutsi tangizedia zabaltzeko ezkondu ziran senar-emazteak;gizona egiteko,alegia.Ortarakoxe bakarik.

Eta gizona ez da gorputz uts;gizonak ba du animarik ere.Eta gizonak egingo ba dute,aufaren gorputz eta anima azi bear dituzte gurasoak.

Zein litzeke aufaren zoria,jaio ala,gurasoa baztefera botako ba'lutr ? Eriotza luke aren gorputzak.Eta zein litzake gastearen zoria,gorputza aziaren,anamarik eziko ez ba'liokete ? Eriotza luke aren animak.Ez lukete gizonik aziko.Abere izatea litzake aren zoria.Ebere;abere-bizia luke nagusi ta.Abere;adimen-bizitzarik ez luke ta.

Gizonik azi nai duanak,gorputza azi ta anima ezi bear ditio gizon ofi.

Gizona gorputz eta anima da.Geiago;gizona ea du gorputzak egiten;gizona animak,gizona adimenak egiten du.Adimendun anima dualako da gizona gizoñ. Animak ematen dio gizonari Jaungoikoaren antza. Eta gizona azitzeko elkafenganatu ziran senar-emazteak anâma,adimena ezi bear diote lenen gizonari.Ortarakoxe dira ta.

Ofa,bada,aufaren azibidea nori dagokion "a priori" azaldu.Aufaren azibidea anâma azitzea degu; ori aditzen degu beintzat lan onetan.

Esanak esan,sendiari,gurasoari dagokie aufak azitzea.Aufak jaio ala,bizkafean dute egiteko ori.

Edestiak digunez,edestiaaufeak esan dezatan, sendiari dagokio aufa azitzea.Azibideak berak aitortzen digunez,etxean azitzen da ondoen aufa,Eta sendiak dionez,berari dagokio aufa azitzea.

Onezkeroz ezin ukatuko diogu sendiari lan astun ori.

# AGNOSISTAŔAK

Gizonak txiki-txikitandik degu jakin-miña. Begira umeei; galderu besterik ez dute egiten: Zergatik, amatzo ? Nola ?..... Eta zenbat eta geiago ikasi, ainbat eta biziago egi-gose ori.

Luzaroan egon da gizona gauzak zuzen ezagutzen zitualakoan; astindu zuan, baña, bein bere baŕua ta zalantzak nonbait osk egin: begiak gauzkien azala baño ez dakuste; azalpe ori baŕentzea adimenenari dagokio, baña...adimenak dasaitena egia ote ? Gauzkien dantasuna begiak ikusten fuan bezela ote ? Zalantz onek baŕen-baŕeneraño zulatu dOo gizonari egi-miña.

Eztabaida au dala-te, ba'degu itaitzirik naiko pilosopoen artean. Kant, Fichte, Schelling, Hume ta beste asko eskolastikoeŕon etsai ditugu. Agnosistaŕak ere gure aurka datorz. Ikusi dezagun zer dioten.

Gizonak, egia esan, auŕerapen aundiak egin ditu jakintz-baŕutian. Zenbat gauza, baña, oraindik ezagutzeke ; Jaungoikoak egin dituan aibat izar ezin zenbatu, ta erdiak ere ez ditugu ezagutzen oraindik gizonok. Oinpean degun luŕa ezein ezagutu: Nork daki ziur luŕaren sabelean zer gertatzen dan ? - Aizea, ura, eguŕa t.a., beti esku artean ditugu, ta iñork ere ez daki oraindik zerk osatzen dituan lenen-gaiak. Zenbat gauz indaŕarekin zer ikusia dutenak ere oraindik bear bezela sakontzeke;

Gizonak, beraz, ludiaren zati bat besterik ez degu ezagutzen. Auxe dute agnosistaŕak oñaŕi. Ludia gauz askok osatzen dute, gizonak eta abereak, bizidunak eta bizi-gabeak. Zati oiek guziak zer-ikusi aundia dute alkaŕekin, oso loturik arkitzen diram bata besteŕarekin, eta tramankulu aundi bat osatzen dute danen artean. Zatia ezin ezagutu dezakegu, baña, dan bezela...., berak osatzen duan "guzia" ezagutu gabe. Gizonok ludiaren zatia bat besterik ezagutzen ez ba'degu, beraz, ezer ezin jakin zuzen ete dan bezela; egirik ezin jakin, alegia. Gure iritzi guziak aldakoŕak ditugu. Egia beŕiz beti bat/Jaungoikoa ba'dala diogu gaur; baña, Jaungoikorik ez izatea ez

da ezin leikena. Bi ta bi lau al dira ? Boet dirala esango dute, agian, geroago. Antziña egizkotzat jo zituzten iritzi asko, luŕera erori diŕa gerora. Koperniko'ri ere gertatu lezaioke Tolomeo'ri gertatu zitzaiona. Gizonaren adimenak eŕexenez jokatzen du beti egi-gauzetan. Siniste edo uste ori al-du eŕexen ? Orixe bera egitzat emango du. Gizonok, beraz, eẽezkeria degu egi-neuŕi.

Oŕa or bi itzetan agnosistaŕen iritzia azaldu; iritzi gogoŕa gizonontzat, irakurle. Egoak mostutzea ere ez du txẽriak oŕen min. Aŕaik ura bezela, adẽ-menakegi bear bait du bizi izateko.

Agnosistaŕak diotenaabaña, egi ota ? – Ez. Dan bezal eta egi-neuŕiz ezertxo ere ez ba'daki gizonak, agnosistaŕak ere ezin jo, dezateke beren iritzi oŕi egizkotzat. Naiz jakintsu, naiz ez-jakintsu, guziak bide bat dute egia ezagutzeko, adimena, alegia, ta sentzunan beŕi k. Agnosistaŕen ustea egizkoa ba'da, beraz, jakintsuen usteak ere baŕdin. Oŕegatik, agnosistaŕak bere ariari zintzo eutsi nai ba'dio, ezin dezake ezertxo ere esan bere iritzi alde. Bere burua lur jotaikusi nai ez ba'du, kukuarena egin bear nai ta naiez, mututu. Beste gauza bat oŕez gañera, gizonok eŕexen zaigumaeman oi degula e egitzat, dasaigute agnosistaŕak. Sentzugabekeria oŕek berak azaltzen digu agnosistaŕen okeŕa. Nork ez daki pilosẽpiko iritzi guziak baño, agnosistaŕen i. iritzi bakaŕa ukatzea eŕexagẽ danik ? Gizonok eŕezkeriz izatera, beraz, egi-neuŕi, ezin izan egizkoa agnosistaŕen iritzia.

# GURE ELBURUA

Gizarte ta abere-bizitzak al de guztietatik lotuta dauke gizona. Zoritxarez gizatasuna galduta aberiak lez bizi diran gizon asko doguz gaur egunez ludian. Gizarte ta ebere-bizitza onein aurka e... ekiteko guztiok biarturik gagoz. Zelan baña ?

Ikusi daigun: Abere-bizitza egin nai ez daben gizonak bere izate altsuari dagokion elburu bat biar dau . Gizarte ta abere-bizitza ,menperatu, gizonari dagokionez bizi ta geure nortasuna bikañago egiteko elburu bat aukeratu biarbdogu guztiok. ZElakue baña, izan biar ete dau elburu oreik ? Gizonaren izate bikañari dagokiona, goian esan dogunez, Ludi ontan gauza guztiak dabe euren elburua. Bakoitzak bere egikisunak zer edo zergaitik bete oi dauz. Ez da, ba, ludian elburu bako gauzarik. Ez da gizonik be. Zein ete dau, ba, gizonak bere izate bikañari dagokion elburua ? Gizonak aukeratu daiken elbururik jator, altsu ta ederena Jaungoikoa bera da.

Gizonari bere izatez dagokion Elburu ori, gizona egin ebanian Jaungoikuak berak ezartu eban. Zelakua guk izan nai genduan guri galdetu barik egin genduzan Jaungoikuak. Jaungoikuak bakarik, eta ez beste iñork giza-bi otzaren nai-izate guztiak ase ta bete al daikez. Egoki ta ala bearezkoa dagu, beraz, Jaungoikua gure egikizunetarako. Jaungoikuaren nada betetzea da, ba, gure eginbiafa ludi ontan.

Aukeratu ako Elburu ori lortuten gogo-biotzez guztiok alegindu biar gara. Geure Elburua begien aurian dogula gizate ta abere kiñada ta erasoak obeto menperatuko doguz. Jakiña, gizonok, abere lez barik, gizonari dagokionez bizi gaitezan eta geure Elburua lortu dagigun, laguntasuna biar dogu. Gizagasmeai giza-bizitza egin-erazoteko gizon bereziak biar-biarezkoak doguz gaur egunez ludian.

Ona emen, ba, abade baten eginbiafa: Kisto gizon guztiai Elburutzat agertu ta erakutsi. Ez agertu ta erakutsi bakarik, baña; baita Elburu ori lortuteko biderik onenak erakutsi, adoretu, ta indartu be. Abadien eginbiafa aundia benetan, eginbiar aun-

dirik ludian ba'da.

Gureeginbiaŕa,be,anai irakurle,urte gitxi baŕu auxe izango da:Josukisto gure eŕietan zabaldu. Oŕetarako,baña,ondo gertau biar eran .Gure eŕiak Kisto ezagutu dagien,lenengo geuk ondo Bera ezagutu biar dogu.Ikasi daigun,bada,gogo-biotzez Kistoren irakatzionak,gero eŕi osoaren jabe geranian Bera gizon guztiai Elburutzat agertzeko.

#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#

#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%

# JOSU'REN BERBIZKUNDEA

Josuren berbizkundea...sinistuten dogu,bai, sendoki kristauok."Eta iragaŕen egunian ilen artetik bizt u zan" esaten dogu Siniskitzan.Baña, ba'dira egi au ukatuten dabenak,adimentaŕak adibidez.Zer da onein iritziz Josu'ren bizitza guztia ? Izadiaren emaitz bat,ez dagó Josu'ren bizitzan goitiko edo izadi gañeko gauzarik.Miragaŕizko gauzak erakusten ba'deuskuez,baŕiz,goizpargilak,Josu'ren bizitzan,ipuinlaritzat artu geinkez,diñauskue. Zer da,ba,onela Josu'ren berbizkundea ? Ipuin bat, ameslariak gara,ba,kristau guztiok,ameslariak batez bere Josu'ren ikasliak.Ez zan,ba,Josu egiaz berbiztu.Entzun,baña,zer diñoan Paul deunak:"Josukisto berbiztu ez ba'da,alperekoa da gure izkintza, alpeŕikoa gure sinismena".Ona emen auziaren gaŕantzia.

Sendoki sinistu eben Apostolu ta ikasleak Josu'ren berbizkundea,Egi au ez dabe ukatuten adimentaŕak eurak bere.Begira zer diñoan Strauss'ek: "Ezin geinke egi au uketu.Sinsmen sendoa euken Josukisto'ren berbizkundeagan ikasleak . Nai ta naiezkoa da,Baur'ek diñonez,Kistertasunen edestian, berbizkundeaganako sinismena,ez ordea berbizkundea bera."

Edestilari dakusguz adimentaŕak,eta edestilarien antzera aldendu egin bear dirala-diñue-ipuñak edesti-gertaeraetatik.Au da edesti gertaera:

berbizkundeagana ko sinismena . Berbizkundea bera ipuim bat baño ezta.

======

Gertaera bi daukaguz Josu-Kisto-ren egiasko ber bizkundea adierazoteko:a)Utsik biłatu eben iłobia Josu il eta irugaŕen egunean.g)Emakumeai,apostoñluai ta ikasleai agertu jaken. Lenengo atala bakaŕik asiko dogu gaur.

Ez daukie gertaeraook adimentaŕentsat indaŕik.

Entsun daiogun M.Guignebert'eri:"Iłobi utsak ez deuzku ezer adierasoten.Josu'ren gorputsa iłobiratu be ez eben egin-eta"."Josu'ren gorputsa iłobiratu ebela egitsat artsea,berbiztu zala adierazotea izango litzake,ostu egin ebenik ezin esan geinke-ta".

Ez eban M.Guignebert'ek asmatu uztari au Strauss'ek baño.Begira zer diñoan Straus'ek bere "Vie de Jésus"en:"Josu'ren gorputsa toki ezagun baten iłobiratu ba'eben,gauza eŕeza izango jaken apostuluei iłobi ori biłatu ta erakustea.Baña begiak naikoa jakoezan,onela gertatu ba'zan,sinismen gustia baztartseko.Iłobira juatea baño ez egoan".

Uŕiñago doa oraindiño Strauss bere "Nouvelle de Jésus"en."Berbizkundea miraria ba'da,diño Strauss'ek,gutxi ardura deuzku orain ala geroatxoago,miraria ez ba'da,baŕiz,izadiaren indar-bidez azaldu al'baleike,nai ta naiezkoa dogu gertaki ori baŕitxamartzat artzea.Guk,baŕiz,gauzok,gogo-izti-aldakera-bidez azaldu gura doguzan ezkeroz,aldi luzetxoagoa eskatsen dogu,gogo-izti-aldakera ori izan dedin,alegia."

"Itxi daigun iłobi ezagun baten,Jerusalen'go ateettan,Josu'ren gorputsa.Betoz orain apostoluak Josu berbiztu dala esaten.Asi be iz Jerusalen'en bertan eta egun bi baño lenago Josu'ren berbizkundea zabaltsen.Juda'ŕak,bai,laister juango litekezela iłobi oŕetara.Bai ta gorputze artu ta danari erakutsiaz apostoluak guzuŕean aŕapatu be".

Ezin leike,ba,esan,Strauss'ek diñoenez,Josu Arimatea'taŕ Joseba'ren iłobian ipiñi ebenik.Josu be beste kurutz-iltzatuak botaten ebezan karkabara bota ebela,deritzaio egokiena.Karkaba aretan zaiła zan Josu ezagutzea.

======= (Ba-daŕaike)

# Eliza Garaile

Etsaiz inguratuta bizi izan da beti gure Eleiza Ama donea. Aspaldi batez Neron, Domiciano, Trajano t.a., bide, zigorkada ta eroapenik izan zuan. Geroztik ere zenbat neke ta samiñ jasan izan dituan, Jaungoikuak berak daki. Jesukristo'ren Eleizari lur-jo-eragiteko, asmatu-alak egin izandiitu gizonak. Eleiza Ama donea, baña, zutik eta garaile beti. Golgota-mendiko odolaren goriaz kristau-biotzak sutu ta ugaritu baño ez ziran egin. Zenbatu bestela martiriak.

......"et portae inferi non praevalebunt adversus eam" Infernuko etsai guziak bat-eginda ere, ez diote erazoko Eleizari. Zigorak...nekeak...eragozpenak beti gaiñean, eta zutik diraukela Eleizak ? Bai bein; Jesukristo'ren itzak, Jaungoikoa da-ta, ba'du indarik. Lurperatuta genduan bestela onezkero.

Jaungoikuak berak sortu zuan Eleiza, ta Jaungoikoa bera du Eleizak buru. Gurutzean erailddako Kristo ber-bera.

Burua gurutzean erail ba'zuten, gorputza ere jasarpen eta lorpean bizi bear. Berari egin izan zion bezelaxe, Eleizari ere munduak buruka bizia emingo ziona, aspaldi iragari zigun Kristo'k.

Berberpizkunde-egunez, baña, lurpetik berpiztu egin zan Kristo. "Jam non moritur". Berpiztu ezkeroz ez da iñoiz ilko. "Illi ultra non dominabitur" Irita'rekin ez du geiago eriotzak burukarik izango. Eleiza Ama donea ere ez du gaur gero eriotzak lurperatuko.

Aro ziran juduak Ostiral-Santu egunez, Kristo gurutzean erail zutenez, bein betoko garaile ziralakoan. Bi egun geroago, lurpetik berpiztura, garaitsu Kristo, "alleluya" abestuaz. Kristo berpiztuta, ta bere etsaiak zapalduta; Kristo eriotz-ondoren garaile. Arenetsaiak une bateko garaipen-ondoren Goikoaren zigorez menperatuta. Jesukristo'ri gurutzaiotsagaria bizkareratu zion Pilatos epaile koldarak, Viena'ra erbesteratuta, samiñez eman zituan azken-egunak. Juduak, bizi-lekurik gabeko

aruntz-onutzka dabiltzenen antzo,eŕi guztietatik jaurtikiak izan ziran.Iñork artu nai ez etxeko.
Juduen eŕukaŕia;

Eŕomar agintari aŕoak ditu gero Eleizak etsai.Ikaraz zan iru eunkiz Eleiza jaio-beŕia agintari aien menpean.Aŕo baño aŕoago agintariok mundo osoko jaun eta jabe bai'liran.Eleiza, beŕiz,bitartean,alatsu landare gastea,lurpean,"Catacumbetan",zanbal eta zabal eŕoak,egunetik egun era mardulagotzen.Kristo'ren etsaikgaiñean,baña, zogoŕa.Ainbat kristauri bizirik su eman zien Neron basatiak,sastakai bategaz,il zuan bere burua. Domiciano erail egin zuten.Trajano pozoituta il zan.Diocleciano,gaxo nazkagaŕi batek artuta ,gozez il zan erbestean.Kristoŕen azpian etsaiak. Lurpean.Kristo,beŕiz,berpiztuta garaiĺe,"Surrexit, non est hic".

---

Berpizkunde-goiz zeragaŕiz iru emakume mendian gora,laŕi antzean Jesu'ren iĺobi aldera.Beŕtaratu ziraneko taupadaka asi zitzaiien biotza. Eduŕen zuria baño zuriagoko soñeko dun aingerutxo bat iĺobi alboan."Surrexit,non est hic". Berpiztu egin da;ez dago emen.
-Ene aingeru,beldue antzean emakumeak,zer dasaguzu ?
-Berpiztu egin da;ez dago emne.
-Zer dasaguzu,aingeru ? Gudariak Kristo'ri emandako bots miĺa zigorkad a ez ziran iltzeko naikoa ?
-Berpiztu egin da;ez dago emen.
-Aingeru baña,aibat arantzez burua zulatu ta ezuŕak giltzez erdibituta,ez zan il Jesukristo ?
-Berpiztu egin da;ez dago emen.
-Ene aingeru,esan;Longinos odol-zaleak asta-makiĺaz bulaŕa zulatu zionean,ez zan il bein-betiko ?
-Berpiztu egin da;ez dagi emen.

---

Kristo'ren garaipena,Eleizaren garaipena da. Kristo garaiĺe izan zan.Eleiza garaiĺe izango da.

#$%#$%#$% $#$%$#$%$#$%$#$%$#$%$#$%$#$%$#$%$#%$#$%

%$#$%$# &%#$%&&%$#$&%

%$#$%&#$%&%#$&

# Pake-bila



Guda aundiaren ostean jaio zitzaigun lateri elkartea,Lateriak,pakea betikotzeko asmoan,1918'an elkartu ziran.Guda artan lateri asko ondatuak izan ziran eta gudari beti-vetiko ateak itxi nai izan zizkioten.Ba'dirudi gizarteari pakea betiko sotu zitzaiola,eman zituzten lege-bidez,Berekin zuan gizadiak ainbeste aldiz eskatutako pakea.XV'gn. Benedicto Aita Santuak ordezkoa nai izan zuan pakerako zuzentzen ziruzten batzar nagusietan eta ez zuten aintzaketzat artu.

Pakea irizteko ezin bide okeragorik aukeratu bera goitik ezari nai izatea baño.Gudaren sustraia lotzeke,ez gera pakearen jabe izango.Gizona bezin aintziñako onaria du pakeak;ezin luteke, bada,non-nai ark itu pakea.Bide bakar aualde batera utzi zuten Ginebra'ko pake-zaleak.

II/

Bere Egilearengana dijoa gizona;bide bakar du ortarako,Jaungoikoak berak erakutsia;Ta bidezo joatea bere eskn du gizonak.Bi zatitakoa da gizona; gogoa ba du,baita lura ere.Gogoak bidez era man bai du gizona;lurak,beriz,abere egin nai luke.Emendik datorkigu guda bizia.Loyola'ko Iñaki'k bi ikurinpean ikusi zuan gizartea:Kristo'k zabaldua bat,Lezifer'ek bestea.Gogora baño lurruka gogoragoa dakar gizonak bere barenean.Gudari izan da beti,baita izango ere.Gizonik paketsuenak sanduak ditugu,baita gudari onenak ere.Guztien artean paketsuena Jesukristo.Pakearen nagusia diotza Isaias igarleak. Ala ere ona zer dien pakearen nagusi orek:"Ez uste pakea ekartzera etori naizebik,guda baizik". Gizartearen osasunerako bearezkoa da noski pakea; ala ere gure osasunerako jaio zaigun Kristo,askoko ta skoren ondamendirako etria dala dio Paul doneak.

Bere buruaz,eginbear asko ematekoa dala esan digu Jesukristo'k."Senideak nere izenagatik eriotezako salatuak izango dira;aitak semea ondatuko du; semeak gurasoen aurka jaikiko dira ta il egingo dituzte ta jarraitzaleak goroto izango diru.

Jesukristo gudari bularrtzuena bezela agertu

zitzaigun;izan dan matxinadarik aundienabera da. Bere jaraiřzaleak gudari-mutilak izan bear dute. Paul doneak buřuka gogořa dakar,ez du beyi nai lukena egiten eta azpiřatua izango ote dan bilduřez,deadar egiten dio Jau ari,bizitz onetatik ,ařdn uřundu dezan;bait ba'zekian bizitz onetan betiko guda izango zuana.

Benetako pakeak guda bizia du oňaři.Ez,bada,ib ibiři non-nai pakearen biřa.Pakea nai ba'degu, ezaera zer batek,gudarako eřuai egoteko oartzen dagu eta ederki,alaere.

III/

Gogoa aragiaren gain jartzean izango degu pakea.Guda bear degu aragia bere neuřian eukitzeko.Orixe degu pakea arkitzeko bide bakařa.Gizonak pakea irizten ba'du,gizarteak ere bereala izango du.Ořelaxe bakařik iritxi lezake gizadiak pakea. Beste bidetik ba'gabiltz,gureak egin du.Ori bera egin dute lateři-batzak:lateřiak lotu ta gizona azkatasun osoan utzi;Ona eman elkařte ořen ondamen ituřiaBa'dakutsegu ondorenak.Beste bide bat opa diogu.Lateři olek pakea benetan nai ba'dute beintzat gure Eřoma'ko Aitarengana atzuli bitzate begiak,onek bakařik bait ditu pakezko erakutsiak. Benetako pakea Jesukristo'k bakařik eman lezake.

Jaunak bere mirabeei ematen diennpakeak etsaak garaitu ta biotzak agindupean makurtzen ditu, Jesukristo berak esan du:bakařa da benetako,pakea. "Pakea usten ditzutey esan digu, nere pakea ematen ditzutet;ez datzutet nik ori ematen munduak ematen duan bezela.Zuen biotza ez dadiřa naasi,ez beldur izan.Zoazte'mu du guzian bařena,erakutsi zaiezue nondik etořiko zaien pakea,erakutsi,bai,erakutsi."

Auxe egin bear degu pakea irizteko ta,ori be ikasi bear dute lateřiak pakea betikotu nai ba' dute....

#$%,$#%#$#%,%$#%$,%$,$#&#%,#$.,%#%$#%$#%$,%$,%$#%

%$#%$,%$#%$#%$#%$#%$#%$,%$,%$

%#$#%#$%#$%#$%,%$#%$#%

%$#%$#%$%#$%#$%,$%$#%$,%$,%$,%$,%%.

# LEOVIGILDO ta EUSKALDUNAK

Euskaldunak eusko-mendietan azke bizi ziran.
uriko,agotuen eregea,478´gn.urtean euskaldunen
urka etpi zan,bere gudarostea,baña,eusko mendi-
tan puskatua izan zan.Auxe diote Isidoro deunak
ta Moret,Pelbicer,Rodrigo Jimenez de Rada,Morales,
ampion,eta besteedestilari batuzuk.

Eus aldunak ez zuten agotuen aurka beste buŕ-
karik izan Leovigildo´ren garaira ate.

58I´gn. urtea zan.Leovigildo zan agotuen buru
uskadi´ko luŕak eurenganatzeko prets zeuden eus-
aldunen etsai gogoŕak.Agotuak euskaldunak men-
eratu nai.Euskaldunok,beŕiz,azkatasuna maite.Azka-
asun oŕek luzaro irau go ote zuan ?

Agotuak Leovigildo´rek n Euskadiratu dira.
uda gogoŕean ari dira.Zein garaiĺe ? Aita Ruiz
mado´k bere "España´ko Edestian","Leovigildo so-
etió a su cetro a toda la peninsula" esaten digu,
gia ote da ? Ikusi dezagun.
arai ontako gertaerok,gure eusko-edestilariak ez
izkigute argiro-argiro azaltzen.Adibidez:A.Henao´k
ere edestian,Leovigildo´k Gazteiz´ko eŕia ez zuala
ñoiz menperatu,idasten du.Beste batzuk ordeabaieetz
ste,A.Henao´k,Leovigildo´k ez zuala egin Gazteiz´
o eŕia esaten du,ta oŕegatik digu 58I´gn.urtean
z zuala menperatu.Oŕa bere oñaŕia.Baña bai al zuan
giĺe izan beaŕik menperatzaĺe izateko ? Nik,Mo-
et,Rodrigo Jimenez ta Campio´ekin,Leovigildo´k
azteiz menperatu zuala uste det.Baña Gazteiz eta
ere inguruok edo Araba bai ba´dezute,Euskadi gu-
ia al da ? Nai ta naiez ezetz erantzun bo ar.Nik beŕ-
z oraindik ez daki t ,Leovigildo Gazteiz´ti auŕera
Euskadi´ko luŕetan sartu ta garaiĺe izan zanik,
ñork esan duan.

Bat edo bestek ordea baietz esango digute.
na beren oñaŕia:GoggoraTorreblanca´k bere "His-
oria apologética de Nabarra"n (lib.Iº,cap.24) Leo-
igildo´k Bizkaia menperatu zuala digu.Beste al-
etik Garibay,Luiz Lopez ta Vasco´k Napaŕuamenpe-
atu zuala.Eta aren eta besteon o ñaŕia,Juan Bi-
lorense dala.Oñaŕi gogŕa.Juan Biclorense Leovi-
gildo´ren garaikoa da ta bere itza benetan azken-

itza degu, Baña Juan Biclorense'k, Ruiz Amado, Garibay, Morales, Luis Lopez, Vasco ta Gongora'k esaten dutena al dio ?

Nik ezdakit egia dan, baña askotan edeslarien adimena ere itxuturik gelditzen dala usten deg.

Leovigildo'k Euskadi guzia menperatu zuala edo batez ere Napařua, Bizkaia ta Araba oñazpiratu ziruala esaten digute; eta Cronicon Biclorense'ren itzak ola aditzen ematen dutela.

Galdera bat oraín: Juan Biclorense'k ori esan al zuan ? Emen bere itzak; eta baietz alo ezetz zuek erantzungo dezute: Leovigildus Rex partem Vasconiae occupat". - Partem eta totam berdiñak al dira ? Nundik dakite Garibay, Vasco, Luis Lopez, Ruis Amado, Morales, Salcedo ta Gongora'k, Leovigildo'k Euskadi guzia menperatu zuana, edo batez ere Napařoa, Bizkaia ta Arabe oñazpiratu zituana ?

Biclorense'k ezdu totam esatem, partem baizik. Gañera ez dú ez Napářoa, ez Bizkaiu, ta ez Araba izentztzen. Esaera oien oñarria nun dago ? - Iñun ez. Bat bakařa aditzen emaň digute, ta bera, bai zoritxařez, euren buruaren aurka daukate.

Oñaři bat, eta oñaři ori gure alde. "Leovigildus Rex partem Vasconiae occupat".

"Partem Vasconiae occupat". Zein zati izan zan ori ? Campion'ek auxe digu: Leovigildo invadió Alava, donde sostuvo varias luchas con los vascones. La tierra llana de Alava es lugar a propósito para e estas incursiones por no hallarse defendida como las demás regiones vascas con la defensa de las montañas".

Ořa or egia. Egi bakařa.

---

Bañan gure edestian onelako ilunpasun asko ditugu oraindik. Ez al dago emen iñor gure edestiaren ilentasun oiek argitu nai dituanik ?

#$%,,$%,#$%#$%$,%$,,%$,,%$#%$,,%$,,%$,,$ %$

%,,#%,,#%$,,%$#%$,,%$,,,,%$ %$,,%

%,,$%,,$%,,$%#$

# agiñe'tar martin nungoa..? ibañangelu'koa..?

Zorionez"d un"dogu Agiñe tar Mañtin.Amaika berbakizunen sorburu izango yatzu,ene irakurle, Martin ori.Baita amaika asañe,gañasi ta alkar ikusi eziñen aziera be;batak emengoa ta besteak ango dala,amai-bako auzia.Beasindarak eurena,Bergarata'ak euren-eurena dala....ta....Ibañangelua'ko agur etxoak Agañe baseñikoa dala diñoskue ostera.

Ez yako atsegin izango enen beste sarata, naaste ta goñoto Marrin deunari.Onutz etoñi al ba'ledi etoñi....¡batenbatsuei astindu edeñak emongo leuskioez.Ibañangelua'ko.aguretxoai be,bai ete ?

Bilduñez eztu ta lañi nayatortzu,ba,ene irakurle.Agiñe'tar Mañtin nungoa ? Ibañangelu'koa ? ikusi orduko betondo baltza jañi dozu zuk be irakurle,Gipuzkoa'koa zaitut kontizu."Txotxolokeria amesak" diadar dagi beste oñako oñek.KARDABERAZ eskuetan artuta onela arutzago dagoan urliak"bizkaitar añaiuok santu bat ditek eta geureóil kendu nai".Azkeneraño irakuñi baño len zer esan nai dautzudan edo niñe asmua zein dan,ez dakizu ta baretu zaiteze ene irakurleok.Bizkaitaña ba'gendu be zer ? Bizkaitar,Gipuzkoar,Arabar,Napar,Zuberoar ta Lapurtañak,danok be areitz ondo betetik sortutako adaburuak ez al gara ba ? Anaiak ez al gara ?

------ ------ ------

Agiñetar Martin deunari Ibañngelua'koa dala iragarten ez nayztortzu,baña.Edestilañieri dagokoe oñi ;gure eguretxoen uste ta aburuaren bañi emon nai dautzut.Aguretxook diñuena euren buruan sortutako asmakisuna ez dala adierazo gura dautzut irakurle.Akorda derotxon Ibañangelua'ko auzunean Uriarte zan abade.Kanala,Arteaga'ko auzunean ume bat jaio ta auzune oñetako abadea kanpotik zala ta bateatzeko Uriarte'gana ekañi eben.

-Zein izen ipiñiko yako jaio-bañiari ?

-Pelipa jesus,jauna.

-Pelipe Jesus ? Ez al da gaur gure eñiko santuaren eguna ? Egunari beria zer dala-ta kendu ?

-Martin ipiñi bear yako....Alantxe ipiñi be.

Ofa or ba irakurle,Elantxobe ta Arteaga'ren erdian itxaso baztertxoan dagon efian esan oi dana Ibafangelua'ko efian Agafe izeneko iru baseri doguz.Agife goiko,Agiri erdiko ta Agife beko.Agife erdikoan jaio ei zan Martin.Teía ola zan antxina Agife erdiko.

Zuatz artean labelatxoa ondoan antxe dozu baseri ori.Basero oretako ate buruan kurutzea ta S.Juan egunean eleizara eruandako lora-txortea ez dara paltaizaten;Kurutzeaetxe oretako kristautas sunaren ezaugari ta lora-txotea euskotar-ekandu garbi-garbiaknetxe aretakuan ondo gordetan dabe zala adierazo naian.Ofa or gure baseria.

Guazen orain arira.

XVII'gn gizaldia Nangasaki(Japon'en) Igokun dearon Martin eta beste bere lagun batsuk ziñopa ofen bari A.Frois'ek damosku bere "Acta Martyrum" en.A.Frois portugaldara zan.Mixioetako gora-bera guztiak berak idatsi ta Eroma'ra bialdu bear izatten ebazan.A.Galdos'ek R.I.E.V. edesti bari bikaiñña dala diño ta bere edesti lanetan ezertariko utzik iñork ez dautzala bilatu batez bere efo-izenetan eta onelako gauzotan.Fois'ek auxe diño: Acta Marttrum'en idasten dana,Martin deunaren ta berònen lagunen eriotz gogofa ikasi ebenak esandakoa dala.Idas-lan ori A.Aquaviva'ri bialdu eutson eta 300 urtean galdutzat egon da.A.Galdos'ek bilatu dau Alemania'ko idasti toki batean.A.Fois'ek auxe diño bere idas-lanean:"F.Martin de Ascensió teólogo,matural de Baranguela,en Viscaya".Ona emeba oin ultzea.Baranguela ori Ibafangelua ete da ? Azierako"I" galtzea ez da afitzekoa A.Galdos'ek diñuanez:Auxe bearu jaso da"Ibarika"n=Barika eta "iaiarte = Baiarte".Baraguela"k "r" bat dauko."Ibarralguelua"k "rr".A.Frois'en edesti-lenian Parrilla ipiñi bearian"Parilia" dago."Ibarranguelua" ba'da "rr" ta "U" barik ipintea afitzekoa ala ?

, A.Galdos'ek onela ipinten dau R.I.E.V.'en:

I ba rran gue lua

Va-ranguel- a

esanak esan:Ibafagelua'ko agiretxoak zio barik efo onetan deun bat izan zala esten ete dabe ?,

#$%#$%#$%#$%#$%#$%

## EZ DA GOGOZKOA ABEREAREN ARIMA

Arimak berez arnasa esan nai du.Geure esanetan,beŕiz,eskutuko gauzei ta begiz ez dakutzegun guziei asko aldiz spiritus edo ar ima deritzegu.Eta Jakintzaren ustez zer da arima ? - Gai gabeko(inmaterialis)ta adimenezko gauza da arima. "Ez da gogozkoa aberearen arima esatean",bi gauz adierazi nai nituzke:gorputz gabe ez daukala ez izaterik,ez eta ezertxo egiterik ere arimak;2/adimen ta nai-gekoa dala.

Aberea arima gabekoa dala aintziñetan esan zigun Julio'k;Gomez Pereira'k ere "Antonia margarita"n auxe bera dio.Descartes,bere jaŕaitzaleak eta batez ere Italia'ko Brxia ere iritzi berdiñekoak dira.Beraz oso aldekoz bestera dadde aberearen arimak gizonenak lez gogozkoak dirala esaten dutenak.Auxe diguŕenak ere askotxo dira oŕatik:Anaxagoras,Diogenes ta beste batzuk aintziñetan dakuskiguz;Platón eta "Arima-aldaketa" edo "Metempsicosis" ontzat zeukaten.Aberea iltzen zanean gizonaren gorputzera joaten zala uste zuten aberearen arima ta oribat gizonarena aberearen gorputzera joaten zala sinisten zuten gizonak azkeneko arnasa ematen zuanean.

Arima-gabekoa ote da aberea ? Adimenezkoa ote du arima ? Bi iritzi oen erdian dagoala egia edozeñek daki.Ba'dute arimaabereak;ez adimenezko ordea:Gorputzezkoa dute.Gorputzezko arima ba'dute la aberean ez dago aŕazoipian ipiñi beaŕik;ikusi entzun eta usaindu egiten dutela,egunero ez dakugu,ba ? Eta txakuŕak aŕukada bat artu ondoren mi izaten duala,nork ukatu ? Ikusi dezagun,beraz, aberearen arima ez dala gogozkoa:

Abereak ulertzen ez ba'du,ez da gogozkoa;Beraz wgiñaletan auxe erakutsi nai nizuke.

I/Gizonak gauz batzuek bestekin alkartzen ba'dakite,batzuek bestietarako bide darala ondo ezagutzen bait dute.Abereak ez ordea;Katua negu gogorean ondo berotzen da geure etxeetan;ba'dakigu beritze oŕegaz txit atsegin zaioka,baña,sua itzatzeko zorian dagola-ta ez degu oindiño egure suari ezartzen ikusi.Zergatik,ez ? Gauzak alkaŕekin daukaten zer-ikusi ori ezagutzen ez dutelako;Gauz batzuek bestien bide darala ez dakuselako,ulermen

gabeak diralako.
2/Gizonak gauz bat egiteko bide asko dakusanean egokiena artzen du. Baña, abereak ezin lezake oŕelakorik egin, ez bait du aukeramenik. Gizonak etxe gañera igo baño len, igotzeko era guziak astertu lezazke ta ondoren igo; txakuŕa oŕelako artesketa gabe edozein tokitik igoten da.
3/Gizonak bere zeregiñetan auŕerapen aundiak egiten ditu; aberean euren eginkisunetan ezdaire iñoiz auŕeratu. Enarak orain mila urte bezela ipintzen dituzte k abiak; erleak era betiko eran dagite eztia. Gizartean norbaitek gauza beŕiren bat asmatzen ba'du, besteak beingoan ikusi ta ainbat laisteŕen erabiltzen dute. Abereak ez dute gauza beŕirik asmatzen; batzuk bestearengandik ez dute ezertxo ere ikasten. Euren eguneroko zeregiñak orain 60 gizaldi bezela egiten dituzte. Zergaitik ? Ulermenaren jabe ez diralako.
4/Burnizko oe bat ikastean, gizonak bere ala dakus oe oŕen egilea oŕamentaria dana.
Oea eguŕezkoa ba'da bereala esango du artza dala aren egilea; baña oe oŕek ez dio gizonari lez ber bere egilea nor dan abereari esaten. Ez du adimenik.
5/Zapi batean Kristo margotuta arkitzen da. Begiratzen diote gizonak eta txakuŕak; Txakuŕek margoa eta maŕak, ikusten ditu, besterik ez; gizonak oretzaz gañera Jaungoikoa ta gizona. Zergatik ? Zuk erantzun irakurle.

# MORALA TA UZKURTZA

Moralak bai al du uzkurtzarekin zer ikusirik ? Korapilo ori azkatzen asi baño len,uzkrtza ta morala zer diran esan dezagun,laburki badaere.

Jainkoa du uzkurtzak oñaŕi.Luditik at dagon Izaki bat,Jainkoa,ezagutzen du uzkurtzak.Izaki oŕen mende dago gizona.Ba dute alkaŕekin ainbat ze zer ikusi,Zer ikusi oiek azaltzea ere,uzkurtzaren egin beaŕa da.Jainko gabe ezin uzkurtzar ik izan; baña,gizonik gabe ore ez.Bata ta bestea,baiak dira bearezkoa uzkurtzarik,izango ba degu.Eta bi oiek elkarganatzea dezu uzkurtzaren egin-bødea.

Beste alde,gizonak ba du bizian betetzeko elburua.Eta ezberak as maŕua,beste batek nai ta naiez ezaŕia baøzákElburu ortara nondik jo ? Uzkurtza dezu prtan bøãee erakusle.Uzkurtz guziak dageŕe beren bideabaña bide zuzenik bat besterik ez,egizko uzkurtza bat bakaŕa degu ta

Eta morala zer dezu ? - Moŕala gordiñik,sustraiean,lege-xorta da.Legea,beŕiz,bde-zuzen-erakus kusle.Gure eginkisunetan nolaekin eta jaŕaitu era akusten digu legeak;eta azkatasunik biuŕitu gabe artara beartzen gaøtu.

Ori oŕela,Moralak gure giza-egite guziak azken elburura zuzentzen ditu.Ortarako ba dira gøzon bakoitzaren biotzean berez jaiotako arau batzuek, esan bezela,gizona beartzen dutenak.Elburua,gizona artara beartua ta ondørengo sari ta zigoŕa,ona omen Moralak moral izateko bear dituanak.

-------

Zer/dio uzkurtz edestiak uzkurt z eta Moralaren zer-ikusiak darala-ta ?

Eskuetan dakargun arazo/ oni buruz,Morala uzkutzge ba leikela diote askok.Ez omen du Moralak Uzkurtzean iturburu ta sustrairik.

Moralak nai ta naiez Uzkurtzarekin bear duala adimen utsez azaldu genezake;baña,orain eskuetan dakargun auzi au Uzkurtz edestitik erabakitzera goazanean,ez litzake egoki auŕeti (a priori) edesti-auzi au erabakitzea.Bukaeran esango degu ze r e edo zer

-----------

Gaur Moralak Uzkurtzarekin zer ikusi aundiak dituala argi ikasten degu.Baña,ala ote zan lenago ere ? Goazen ikastera edesti-zear.Jaiotzeko unean Uzkurtza ařapatuko ba'gendu,Morala berakin jaio tzen dan ikai al izango genduke,Baña ořelakorik eziñean goazen jaoitz ko unetik gertuana daudon uzkurtzeetara,eta astertu dezagun Moralik biłatzen ote degun.

Atzeratutako eřiaen uzkurtzak dira iřurbu utik gertuenak.Atzeratutakoen artetik atzeratuenak "Arkaikoak" dituzu.Ikus ditzagun batzuek.

Pigmeoak.Aprika'ren ego aldeko"San"ak,Andamango ugarteetako,Malaka'ko,Filipinaspko beltxak eta a abr pipmeaok dira;gizarte guziko gende atzeratie nak,giz.diaren leen-małakoak.

Ba'dute eři auek Izaki nagusi baten beři."Guzien Aita" deitzen omen diote.Bera gauza guzien eg łe ta jabe;gizarte ta Moral araacetan bere legegiłe ta epaiłe.Onari saria,lapur,gxxmxxi,gezurti, giza-eraiłe,emakume-ařapatzałe ta gaizto guziai zigořa.Morala Jainkoak bat egiñik arkitzen da, Abisinia'koegoaldeko Gallatařak Wagatokon,Jainko bakařa gurtzen dute.Wagantzako dana dago agirian; bere legietatik eskutatuko dan gaizkiłerik ez da. "Jaunak il nazala gezuřik ba'diot" esan oi dute zin egitean.Ba'dute gaiztoentzako inpern ua eta onentzako zerua ere.

Austronesia'ko ugarteetan,izen askorekin badaere jaun nagusi bat ezagutzen dute.N-E.'koDayacks'artean bakařa deritza Jaun ori,Zeleves'ko Minahasas'artean Mutuuntu,Niaj'koaen artean Lalabanqui,Nueva-Hebridas'koen artean Kat....Jaun ori zerutařa,alguztiduna ta jaun guzien arteko altsuena da.Bera zeru ta luřen egiłea,ona ta gizonak on bidetik ikusi nai dituna;senar-emazteen zintzotasunari ařetaz begira oi diona;onak saritu ta gaizt toak zigortzen dituna.

Patagonia'ko mutyřekoak mendirik mendi dabiłen jaun betz bat maiz aitatzen oi dute.Ondo omen daki kitz berak gizonen itz eta egite guztiak;eta egur aldi ona ala txařa bialtzeko gizonen biziera ome omen du gogoan.Txoři txikieikiltzerik ez du nai; izoskeri ta iñor iltzeak gořoto ditu.....

izaten dek;apaintasuna,argi ta eřwza dalako;ta argitasuna beřiz apain ta eřez-eřeza dalako.Ala ere, iruon mugak,ondo berelzten zail-xamaña izaten dek. Agitasuna,itz egoki ta ezakera jatořetatik datorkik.Eřaztasuna,ari-izanetik.Eta apaintasuna,norbararen bařengo zerbaitetik sortzen dek:zeratik , gogo-almenetik.

Argitasuna lortzeko,Alakar artu bear ditek gogai edo ideak eta tajuzko itzak.Ala ere,soñeko dotorez,xaařez baño askoz egokiago azaltzen ditut zenbait gogai;goien goienekoak baldin ba'dira,beintzat.Idasle batzuk oso argiak izaten dituk,baño ondorañoko sakonak.Ez ditut edozeñentzako modukoak.Beste batzu zeatz-zeatz esaten dizkitek esan beařeko gauzak.Eta zeaztasun ořek ilunagotu egiten dizkik oien idastiak.

Ez,gero,eřaztasuna arlotekeria danik uste izan.Len esan bezela gure eřaztasun onek berekin dik zailtasuna.Eřaztasunaren zaiak asko esan nai d dik iñondik ere.Eřaztasuna,alako biguintasun edo azkatasun bereai bat dek.Ari-ari-ta lortzen dek. Nik ez zekiat,beintzat,ořetarako beste bideřik dagoanik.Dana dala,eřaztasun oři,berez,iñor gutxik izaten duala ta idaslearen yayotasuna neurtzeko,aukera-aukerakoa dala bai,ba'zekiat.

Apaintasuna,azalean ikusten dan edertasun-dirdira dek;baño,zaiñek muin-muiñean dizkik.Eta ituřiak duanetik zeriok beti.Idaslearen bařen-almena ezagutzeko,aren azaleko txukuntasunari,apaintasunari begiratu.Datořen uretik antz-eman,alegia,nolako ituři-begia dan.Bat-ere idasle danak,beřiz,onetantxe alegindu bear dik:dotore,apain azaltzen.Ořetarako,idasti onak,onenak,albait,irakuři ta gañerako ederti-gaietzaz ere baliatu.Ikusiko dek:ořelaxe idatsiko zigutek emendik aurrera euskal-idasleak.Iri idatsiaz,zerbait-zerbait esan ziet,ba,ta gañerakoa aien kontu.Ikusiko dek.Zaiña dala ori?-Ba'nenkiken len ere.Oř zegok,ba, kroxka.Zaila izan eta idasle orok ederki baño ederkiago idastea nai guk.Eta pixkeren bat zabaltzen baldin b dira,bereak eta bost entzun-arazi gañera,-Zaiña dala? -Bai,mutikoa,oso zaiña gañera,ondo-ondo idastea.Ořengatik lekurik geienetan al duanak al duan bezela idasten dik.Eta gure artean,nolaedo ala....euskeraz idastea kontu....Ni ere aritu natzaik zerbaitean,nola ezik.Idaskera <u>dana</u> bait da .

&%#$%$#%=%#$&%#$%#%$,%$#%

# aziera ona: ikastolak

Aziera ona¡Edukazio ona,irakurle.Orixe dezu gizona,gizartea ta eŕiak ere goien maŕara jasotzen dituana.Umeeri aziera ona ematea,beraz,bear-beaŕekoa da.Umeak bait dira geroko gizon,gizate ta eŕi.

Onetarakoxe sortuak ditugu ikastolak:umeak ondo azitzeko,alegia.Ongi azi¡Lan zaŕa izan bear du,nunbait.Edonoa bait dakusgu gaizki azitzako ainbat eta aiŋbat ume.Ikastolak dute oŕen eŕu. Ez dute zuzen jokatzen eta.Ona,bada,umetandik oker-bidean.Umearen ondamena¡Gizon,gizarte ta eŕien ondamena¡.

Ori guzia,irakurle,geure eŕi onetantxe gertatzen ari da.Ez,beraz,uŕuti begiratu.Berton ere ba'degu ikusgairik naiko ta.Geure eŕian diot.Eta ongi diotelakotan naukazu.Izan ere,Euskel-Eŕian ikastolak dagokien lana osatzen al dute,ba ? Leenago,baña,ikastolak zertan duten lan jakin bear. Umeak ondo azitzen esan ditzut auŕeraxeago.Nola, ordea,umeak ondo azi ? Begira gaiŋauetan gaŕenetakoak zer dagakusguten:Umea ondo azitzeko ziŕegi legez (moralmente),gorputzez Físicamente) ta gogoz (intelectualmente) azi bear omen.Iru gauza oiek osatzen dute "umearen aziera ona".Eta alkaŕekin izan bear dute irurak.Bestela utsa aña bait dira.

Oŕa,bada,irakurle,ikastolen elburua azaldu. Elburu oŕetara eltzeko,baña,bideren bat bear,noski;(medium ad finem).Zein bide,ordea ? - Izkuntza.Izkuntza bide bakaŕa.Gizona gizon egiteko ez didorekezu beste biderik.Argatik irakaskintz edo pedagogiaren oñaŕi:eŕitar-izkuntza.Erderaz "lengua vernácula" deritzaiona.

Ba'zekion Belgika'ko pedagogo yayo batek eŕitar-elea gaŕantzikoa danik.Ark esanak dituzu itz auek:"Gutxi badere,ba dira Belgika'n eŕitarelea alde batera uzten duten ikastolak.Eta ori ez da bidezkoa.Sei-zazpi urteŕon umeak izketan ere ezpa'lekiten era berean erabiltea bait ori.Sartu zaitezte austako ikastolaren baten.Zeok dakuskezute:Umeak jo ta ke; jolasean eta irakaslea umeen gainean.Edota bestela umeak erdi-lo...ago-

zabalka ta irakaskea ere ořen baten.Baña,irakaslo ořek noizik-bein eřitar-izkuntzez itz ba'dagi, orduan umetxook entzun naá gogoz esnatu-edo.... bizitu-edo egin oi dira.Orixe da egia.Negargařia! Ořela ezin bait liteke umerik ondo azi".

Miñez mintzatu zitzaigun pedagogo yayoa, Belgika'ko ikastola batzuk eřitar-elea ezetsi dagiela ta.Zer ote lezaiguke gure eřiko ikastoleri buruz ? Ez bait dira Euskal-Eřian ikastola batzuk bakařik eřitar-elea (euskera zaar maitea) ezetsi daglenak;ikastolak oro edo geienak baizik.Belgika'n gertatu oi dan negargaři ba'zeritzaion,Euskel-Eřiko au miře bider negargaři deritzaioke.

Zenbatu ezin aña ikastola ditugu Euskel-Eřian eta bat edo bi euskeraz darakustenik.Onela gizonduko zaizkigu gure umeak ez dulerten izkeran itz egiten ba'zaiote,alegia.Beřiz ere izango ditugu,noski,baseřitar ez-jakiñek (?).

Entzun,baña,irakurle.Erderaz ta erdera ikastea bear-beařeko omen zaio eusko-umeari gerorako ta.Gizon danean erderaz mintzatu bearko omen.Euskera iřa izaki ta ezertarako ez gai.......Aundiagorik ere entzun al izan degu,biotza naigabetu ba'digute ~~aze~~.Beren buruak aintzak artzen dituztenegandik gañera entzun ere.

Eusko-umeari erderaz erakutsi bear zaio,jaunok dasagutenez.Gero....gizon danean erderaz mintzatu al izan dedin,nunbait.Baña,ikastola oietan erderarik bai al darakuste,ba ? Ikastola oietan ikasi (?) oi duan erderarekin nora joá bear du gure baseřitařak ? Noiz-edo-noiz erdera beařik izaten baldin ba'du,gogotik ekin bearko dio ikasteari.Ez bait zioten ikastolan ezer erakutsi.Ori egia danik ez didazu ukatuko,irakurle.Neroni ere ori bera gertatu zait.Ba'daramat urte mordoa ikastaroan.Erdera-beařa izan nun,noski,lanari ekiteko Eři-ikastolatik atera-ta gero ikasi bear izan dot ordea,dakiten apuřa;Ikastola artan ez zidaten tartik erakutsi ta.Ni bezela izango dira beste asko ere.

Eusko-umeak ez du eři-ikastolen erderarik ikasten.Ez eta euskerari buruz auřerapenik egin e... Tamala,ziñez,eusko-umea beste abeřietako umeak baño beerago jetxi beařa.Aiel bere eřitar-izkuntz...

erakutsi oi diote.Gureeri ez.Aiek ikasi oi dituzte eři-ikastolatik ateratzean jakin bear lituzkenek oro.Gureak ez.

Ez du España'k ontan ainbat naziok jokatzen duten gisan jokatu nai.Inglateřa'k gaztelaraz erakusten die Gibraltar'koei.Gero ingelera gaztelara bide.Berdin Suiza ta Belgika'k ere.Eta ez uste izan,irakurle,nazio oiek yakintz-gaian atzeratutakoenak diranik,Ori ez¡Nazio ořetxek dituzu irakaskintz-gaietan ere auřeratuen.Ořetxek buru.Beraz, beti ere buruaren erabakiz jakatu bear ba'da,ez da auxe beste biderik:Eřitar-elea oñaři dalarik ekin edo yařaitu umeak azitzeari.Euskotařoi EUSKERAZ beraz.Euskera bide baita txino ere,ala beařik....

#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$%#$

#$%#$%,$%#$%#$%#$%#$%#$%

# eta biař zeř

Giza-zalekeria (humanismo) gogamen-zalekeria (racionalismo) bakoitzkeria (individualismo) eta gizertekeria (socialismo) zer ziran lengo zenbakian azaldu genduan.Irakatsimoneane sustraiak eta ondorenak azaletik ba'da be azaldu dagigun gaur.

Gaurko alkařenganako amořu zitala ez da oraingoa,XVI'gn.gizaldian dauko amořu ořek bere sustraia. Protestantismo eritxon irakatsiak sotu eban.Ez eban iñoiz be sortuko,onelako asaérik Kristo'ren irakatsiak:"Anaik dira gizon guztiak,danak,ba,alkar maitatu biar dabe;danak dira Jainko baten semeak,alkar m maite izan-da jadetzuko dabe betiko zoriona.Ez,bada,alkar ikusi eziñik,ez zori txařeko gudaketarik". Au da Kristo'ren irakatsia,au benetako anaitasuna, au bene-benetako giza-bidea.

Gaur-eguneko irakatsiak,baña,beste era batera joten dabe.Ona zelako ondorenak damoskuezan:gizartean ez dago batasunik,ařokeria,lizunkeria ta aljar ikusi eziña dira ludian nagusi.Lateřiaken aurka jeg gi dira,ta lateřiuandiek txikařak oinperatu gurean dabiltz.Uzkurtza bera be gizartean emaitz bat dala

diñue batzuek,lateŕiarena beste batzuek.Durkheim eta durkheimdaŕak,Hitler ta hitlertaŕak begoz ziñaltari.Gizonaren jatoŕizko orokartasuna apurtu egin dabe eta lateŕiak ipiñi dautsoz mugaŕiak gizonari,luŕari ipiñi dautsozan eran.Nai ta naiez amoŕa izan biar auzoko lateŕia ? Au bai dala gizonaren aŕokeria ta zorakerik andiena!

Goazen apur bat auŕerago ta eldu gaitezan XIV'gn.gizaldira.Auŕetik,baña,irakurle oartxo bat egin beaŕean aurkitzen naz.

Ademen laburá dauko gizonak eta urteak joan, urteak etoŕi gitxi auŕeratu daroşauŕerapen nagiak egiten daituz gizagiak.Gaurko gizona gai askotan beintzat,orain 25 gizaldiko gizonaren maŕan dago,edo gso gitxi auŕeratu dau.XIV'gn. gizaldian dogu gaurko irakatsien sustraia.Ez uste izan,baña,auŕerago be oñaŕirik ez dagonik.Aristipo'k eta Antiztenes'k eta Senon'ek eta Epicuro'k,Pirron'ek eta Enexideme'k be'ekiezan gitxi gora-bera irakatsi onek,eta gizonek aspaldikoak dira,yakintzizti-edestiak darakusgunez.

Eta asi gaitezan.Alderdi bi dogoz yakintziztiautuetan gizaldi onetan (XIV'g.Okandaŕak,alde batetik,eskolastikoak bestetik.Okan'ek (Guillermo) (1349) ikasleak ziran Biel (1495),Ayll? (1420), Wiclef (1401),Hus (1416) t.a. Gerson (1?2?),Capreolo (1429) t.a. dagoz eskolastikoen aldetik.

Ona emen okandaŕen irakatsi gaŕantzikoenak: Gure gogaiak gogoaren emaitz batzuek besterik ez dira,geure at zer dagon ez dakigu,gogaiak ez darakusgue guregandik atekorik,geure-geuriak dira ta geu gara euren egiŕe.Sentzumena be ezda egi antorle,geuregandik atekorik ikusten doguna nai ikutzen doguna ez da guri sentzumenak adierazoten emoten deuskuna;guzur maŕazkiak besterik ez dirz sentzumenak adierazoten deuskuna:"figmenta quaedan ",baña geuregandik atekorik beste eratakoak dira gauzak.

Beste eratakoa da eskolastikoen irakatsia: gure gogaiak ez dára gogoaren emaitz,zer-ikusi aundia dabe guregandik at diran gauzakaz,guregandik at diran gauzak dira Jakintzaren iturburu ta sentzumena bides datorkiguz adimenera"Omnis cognitio incipit a sensu et perficitur ab intellectu"

Ez da ba gure gogoa gogaien iturburu,guregandik a at da oren sustraia.Sentzumenak be diran legez agertzen dauzkuz sentzun-gaiak,sentzumenak aagerazoten dauzkuna ez da "ficmentum objecti".

Alderdi bi ereitan banandute aurkitzen da jakintziztia XIV´gn,gizaldian.Abegi anaegiten yakoe Okan´en irakatsiari eta ikasle asko ta sako ditu XV eta XVI´gn.gizaldietan.Eskolastikoak ostera berantz duaz ta geroago ta entzute gitxiago dabe.

Onela agurregieten dau erdi-aroak.Azi txara hekez galdu oi da baña.Erdi-aroan ara-onaka ereindako aziak igali ugariak emon ditu urengo-aroan.

Bari-arora gaituzu.Ona emen aro onen ezaugariak Erdi-aroko orokartasuna zatituta birindu egin da; bakoitzkeria bagusi.Kristau bizitza hastartu da. Kisto´ren irakatsiak aastu edi ari-aastu egin dira.

Txaconak ei dira uzkurtzarentzat (uzkurtza ontzat artzen danen askok diñoe au ) ez baña gizadia;gizadia aske da ta ez dau uzkurtz lokaririk bear.

Adimen-zaleak aure txamar doguz garai onetan. Ez dagu Jaungoikorik agintari.Jusu-Kisto ez zan izan Jaungoikoaren Semoa,gizon cseotsu bat baño. Uzkurtzak gizonaren biotzean sortzen dira.Aske da bakoitza ta nai dabena egin daike;gure adimena da gauza guztien egile ta ez dau Jaungoikoagandik yatorkon araurik .....eta bese onelako orakatsi okar asko damoskuz bari-aroak.

(Ondorenak urengoan azalduko dautzudaz zietzago)

##################### ##################

########################

